

# 12/14

## *irizpena*

Merkataritza Jardueraren Legearen  
laugarren aldaketaren  
Lege Aurreproiektuari buruzkoa.

Bilbon, 2014ko urriaren 3an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

# 12/14 IRIZPENA

**Merkataritza-jardueraren Legearen laugarren aldaketari dagokion lege-aurreproiektuari buruzkoa**

**Bilbon, 2014ko urriaren 3an**

## I.- AURREKARIAK

2014ko irailaren 4an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunerako Sailaren idazkia sartu zen eta merkataritza-jardueraren legearen laugarren aldaketari dagokion lege-aurreproiektuaren txostena eskatzen zuen, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

*"Arauaren xedea Estatuko 1/2004 Legeak, abenduaren 21ekoak, merkataritza-ordutegiei buruzkoak, 5.5. artikuluan xedatzen duen legezko eginbeharra betetzea da. Horren arabera, besteak beste, urtean ostatu-gau eta biztanleria-atalaseak zehazten dira. Bilboko udalerrriak gainditzen ditu eta, ondorioz, gutxienez zona bat aitortu behar da, edukia oinarritzkoa baita".*

Horren kopia berehala bidali zitzaion Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak egin eta iritzia emateko, baita lan-batzorde egokian lantzeko ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari dagokion Funtzionamendu Araudiak xedatutakoarekin bat.

Ekonomia Garapenerako Batzordea 2014ko irailaren 24an bildu zen, irizpen-aurreproiektuaren lehenengo proposamena eztabaidatzeko xedez. Bilera berriak egin ziren irailaren 30ean eta urriaren 3an. Azkenekoan onartu zen Irizpen Proiektua eta, ondoren, Euskadiko EGABren Osoko Bilkurak lantzeko aurkeztu zen eta aho batez onartu zuen.

## II.- EDUKIA

Dekretu Proiektuaren testuak zioen azalpena, 3 artikulua eta Azken Xedapena ditu.

### Zioen azalpena

Zioen Azalpena Merkataritzaren Jarduerari buruzko 7/94 Legea aipatuz hasten da. Autonomia Estatutuaren 10/27 artikuluan xedatutako aurreikuspenaren babesean egin zen eta, txikizkako merkataritza tradizionalaren eta sortzen joan ziren banaketa modu desberdinen artean oreka baztertu gabe, merkataritza-banaketa modernizatzeko bideak zehaztu zituen.

Merkataritza-establezimenduak irekitzeko ordutegi eta egunei buruz ia erregulaziorik ez zuenez, azaroaren 10eko 7/2000 Legearen bitartez aldatu zen eta merkataritza-establezimendu handietan merkataritza lokalak ireki eta ixteko orduan, Eusko Jaurilaritziari ordutegiak antolatzeko arauak egin zitzaizkion gaitasuna eman zion.

Xedapen horren babesean, 33/2005 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza-ordutegiei buruzkoa, burutu zen, baina turismo-eraginpe handiko zonei buruz ez zuen aipamenik egin.

Estatuko 1/2004 Legeak, abenduaren 21ekoak, merkataritza-ordutegiei buruzkoak, 5.5. artikuluan, ordea, besteak beste, urtean ostatu-gau eta biztanleria-atalaseak zehazten ditu. Bilboko udalerrriak gainditzen ditu eta, ondorioz, gutxienez zona bat aitortu behar da, edukia oinarritzkoa baita.

Adierazitakoari jarraiki, turismoa gure Erkidegoan neurritz goranzko joera duen jarduera da eta, ondorioz, zerbitzu egokia eskaini behar zaio, sortutako itxaropenei erantzun behar baitzaie, etorkizunean bisitarien fluxuan eragiteko.

Beraz, arauaren xedea, batetik, legezko eginbeharra betetzea eta, bestetik, gure Erkidegoko beste udalerrri batzuk turismo-eraginpe handiko zonaren aitortzea izatea da.

Turismo-eraginpe handiko zonatzat jotzeak duen ondorioz aipagarriena ondorengoa da: bertan kokatua dagoen txikizkako merkataritzari dagokionez irekitzeko egunak eta ordutegiak malgutzea. Eskaintza turistikoa osatzeko, horrek eskaintza osoagoa eta erakargarriagoa egituratzen laguntzen du, turismoak, berez, jaiegunetan eta beste ordutegi batzuekin jarduten baitu. Hala, bi sektoreetan lehiakortasuna hobetzen da.

### **Xedapen-zatia**

**Lehenengo artikulua** 7/94 Legearen 49. artikuluari paragrafo berri bat eranstean dio, lantzen ari garen eremuan euskara bultzatzeko.

**Bigarren artikulua** xedapen gehigarri bat (Lehenengo Xedapen Gehigarria) eranstean dio 7/94 Legeari eta zona bat Turismo Eraginpe Handiko Zonatzat jotzen denean, erregulazioari dagozkion alderdiak jasotzen ditu. Ildo hori eutsiz, Turismo Eraginpe Handiko Zona aitortzen denean, bertan dauden merkataritza-establezimenduek irekitzeko ordutegien eta egunen askatasuna izango dute.

**Hirugarren artikulua** xedapen gehigarri bat (Bigarren Xedapen Gehigarria) eranstean dio 7/94 Legeari. Horren harira, legea garatzeko beharrezkoak diren merkataritza-ordutegien arloan araubidezko xedapenak egin ditzan Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen dio.

**Azken Xedapena** Legea indarrean sartzeari buruzkoa da.

## **III.- LEGEZKO ETA ARAUDIZKO ESPARRUA**

Gernikako Estatutuak 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, EAEk aginpide eskusiboa du, besteak beste, honako arloetan:

27. Barneko merkataritza; prezioen politika orokorra, Estatuko lurraldean ondasunen zirkulazio librea eta lehia defendatzeari buruzko legeria baztertu gabe. Barneko feriak eta azokak. Jatorrizko deiturak eta publizitatea Estatuarekin lankidetzan.

36 Turismoa eta kirola. Astialdia eta aisialdia.

Ildo horri jarraiki, nahiz eta Konstituzio Auzitegiak 2/1985 Errege Dekretu-Legea, apirilaren 30ekoa, politika ekonomikoaren neurriei buruzkoa, oinarritzko arauditzat jo, egia da ere, eta hala adierazten du 225/1993 KAEak, *“autonomia erkidego bakoitzak bere lurralde-eremuan araudia garatu edota gauzatzeko aginpidea erabil dezakeela, bere Estatutuek barneko merkataritzaren arloan xedatutakoaren arabera”*.

Geroago, 1/2004 Legeak, abenduaren 21ekoak, merkataritza-ordutegiei buruzkoak, arloan Estatuko esparrua finkatu zuen eta autonomia erkidego bakoitzari ordutegien araubidea bere ezaugarrietara eta bakoitzaren merkataritza-eredura moldatzeko baimena eman zion.

Hala, euskal legeriaren esparruan “merkataritza-lokalak ireki eta ixteko ordutegien antolamendua” 7/2000 Legeak, azaroaren 10ekoak, merkataritza-jarduerari buruzko 7/1994 Legea aldatzen duenak, Bigarren Xedapen Gehigarrian jaso arren, Euskadin berariaz merkataritza-ordutegiak ez dira erregulatzen 33/2005 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza-ordutegiei buruzkoa, onartu arte.

Halaber, Euskadiko 7/2008 Legeak, ekainaren 25ekoak, merkataritza-jarduerari buruzko Legea bigarrenaz aldatzen duenak, merkataritza-ordutegiaren araubidearen aldaketa aipatzen du eta orain arte araubidea 150 metro karratu edo hortik gora duten merkataritza-establezimendu guztiei aplikatu dakieke.

Araudi-esparru honetan Estatuan 20/2012 Errege Dekretu-Legea, uztailaren 13koa, aurrekontu-egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak buruzkoa, onartu zen eta, besteak beste, merkataritzaren ordutegiari buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Estatu Legearen 5. artikulua aldatzen du. Gainera, Hamaikagarren Xedapen Gehigarria sartzen da Turismo Eraginpe Handiko Zonen Aitorpena arautzeko.

Nahiz eta oraindik berriaz epaia ez eman, Konstituzio Auzitegiak Osoko Bilkurak, Eusko Jaurlaritzak jarri ondoren, konstituzioaren kontrako 1983-2 errekurtsioa izapidetzea erabaki du. Horretan Errege Dekretu-Legearen barruan honakoen kontra egiten da: 1., 2., 8., 22., 27. eta 28. artikulua; zazpigarren, bederatzigarren eta hamaikagarren xedapen gehigarriak; lehenengo, zortzigarren, bederatzigarren, hamargarren, hamaikagarren, hamabigarren eta hamalagarren xedapen iragankorrak; eta lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren azken xedapenak.

Berriagoa da 8/2014 Errege Dekretu Legea, uztailaren 4koa, hazkuntza, lehiakortasun eta eraginkortasunerako premia neurriak onartzen dituena. Nolanahi ere, aldaketa berriak daude eta Estatu Legearen 5. artikuluari dagozkion 4. eta 5. puntuak hurrengo moduan idazten ditu:

4. 1. atalean xedatzen denerako, udalek proposatu ondoren, autonomia erkidegoek beren lurralde-eremuan turismo-eraginpe handiko zonak zehaztuko dituzte. Turismo-eraginpe handiko zonatzat joko dira udalerririk guztiarekin edo zati batekin bat datozen horiek, honako baldintzaren bat ematen bada:

a) Kuantitatiboki eta kualitatiboki, turismo-ostatuaren plaza eta turismo-establezimenduen edo ohiko egoitzak direnekiko bigarren egoitzen kontzentrazio nahikoa izatea.

b) Gizadiaren ondare bezala aitortua izatea edo, ondare historiko artistikoan integratuta, interes kulturalerako ondasun higiezin egotea.

c) Mugaz gaindiko zonen eraginpean egotea edo horiekin mugatzea.

d) Nazio edo nazioarte mailan kirol- eta kultura-ekitaldi handiak egitea.

e) Itsas bidaia turistikoek jarduten duten portu-eremuetara hurbiltasuna, bisitarien eragina esangarria bada.

f) Areak, nagusiki, erosketen turismoarengatik erakargarriak badira.

g) Hala justifikatzen duten baldintzak elkartzen direnean.

5. Nolanahi ere, 100.000 biztanleko gorako udalerritan, aurreko urtean 600.000 ostatu-gau baino gehiago izan badituzte edo aurreko urtean 400.000 bidaiariekin baino gehiagorekin itsas bidaia turistikoek diharduten portuak badituzte, gutxienez, zona bat aitortuko da turismo-eraginpe handiko eremu bezala eta aurreko atalean aurrez ikusitako irizpideak aplikatuko dira. Datu estatistiko horiek lortzeko, iturritzat joko dira Estatistika Erakunde Nazionalaren edo Estatu Legearen Portuen argitalpenak.

Datuak argitaratzen direnetik sei hilabeteren buruan autonomia erkidego aginpidedunek aurreko paragrafoan adierazten diren baldintzez hornitutako udalerritan zonaren bat turismo-eraginpe handiko eremu bezala aitortzen ez badute, udalerririk guztia aitortuztat joko da eta merkatariek urte osoan zehar establezimenduak irekitzeko askatasun osoa izango dute.

Bilboko Udalak Abando-Indautxu-Garellano, Alde Zahar eta Deustuko eremuak turismo-eraginpe handiko zona bezala zehazteko proposamena aurkeztu du, 20/2012 Errege Dekretu-Legeak, uztailaren 13koa, aurrekontu-egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak buruzkoak, Hamaikagarren Azken Xedapenean zehaztutakoaren arabera.

2014ko irailaren 2ko EHAk ebazpena argitaratzen du eta Bilboko udalerritan hurrengo areak turismo-eraginpe handiko zonak direla aitortzen du: Abando-Indautxu-Garellano, Alde Zaharra eta Deustu; denbora-eremua 2015eko uztailaren 1etik urte bereko abuztuaren 31ra mugatzen da.

2014ko irailaren 4an Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak EGABri merkataritza-jardueraren legeari dagokion laugarren aldaketaren lege-aurreproiektuari buruzko txostena eskatu dio.

#### IV.- GOGOETAK

Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak arlo honetan arautzea alde batera utzi gabe, Euskadiko EGABk jakinarazi nahi du bere ustez desegokia eta ezgaraikoa dela merkataritza-establezimenduak irekitzeko ordutegiak eta egunak gehiago liberalizatzea, kontsumoan eta enplegua sortzeko orduan inpaktu positiboa eztabaidagarria baita.


#### V.- ONDORIOAK

Arestian azaldutako gogoetetan oinarrituta, Euskadiko EGABren iritiz merkataritza-jardueraren legeari dagokion laugarren aldaketaren lege-aurreproiektu hau izapidetzea ez da egokia, hori dela eta proposatutako legezko testua erretiratzea eskatzen du eta, gure gogoeten ildotik, beste erregulazio bat aurkeztea planteatu ere bai.

Bilbon, 2014ko urriaren 3an



O.E. Presidentea  
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos